

ZOZKETAREN OINARRIAK

10 SAMSUNG GALAXY TAB A TABLETAREN ZOZKETA

LABORAL Kutxaren 2020ko ONLINE BANKA KANPAINA

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, 10 Samsung Galaxy Tab A tableta zozkatuko ditu.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoan arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarriarik ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisikoek hartu ahal izango dute parte zozketan, baldin eta sustapenaren aldian, 2020ko otsailaren 21etik apirilaren 17ra bitartean, Online Bankan sartzen badira. Online Bankan sartzen direnean, zozketarako partaidetza bat eskuratuko dute. Zozketatik kanpo geratuko dira zozketarekin zerikusizuzena duten pertsonak, baita, LABORAL Kutxaren iritziz, sustapen honetan iruzurrez jokatzeko dutenak ere. Irabazleak, saria jasotzeko eskubidea galdegin ahal izateko, egunean eta positiboan izan behar ditu entitatearekin kontrataturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Horrela ez bada, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkari emango zaio.

4.- Zozketa

Zozketa 2020ko apirilaren 24an egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez, kanpaina-aldiaren barruan (2020ko otsailaren 21etik apirilaren 17ra) baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien artean. Gainera, zozketan ordezkari 3 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere. 10 egun balioduneko epean saridunetakoren batekin harremanetan jartzerik ez badago entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkari izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

Elektronikoki edo telefono bidez emango da sariaren berri. Honako hau izango da 10 saridunetako bakoitzarentzako saria: Samsung Galaxy Tab A tableta bat.

6.- Sariaren zerga-sistema

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren mende dago, eta zergak ordaindu beharko ditu. Sariaren eragin fiskala irabazlearen kontura izango da, eta LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagokion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikotatik. Bestela, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.